



**KIROL KLUB ETA ELKARTEENDAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, 2026. URTEAN KIROL JARDUERAK BULTZA DITZATEN.**

Nafarroako Kirolaren Legeak esaten du kirola interes publikoko gizarte jarduera dela eta lagundu behar duela pertsonaren prestakuntza, garapen integrala, gizarteratzea, bizi kalitatea eta ongizatea lortzen.

Emakumeen eta Gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak honakoa ezartzen du bere 29. artikuluan: " Kirola garatzeko programa publiko guztiek barneratuko dute emakumeen eta gizonen artean benetakoa eta eragingarria den berdintasunaren printzipioa, eragingarritasunez kontuan har dadin, programok diseinatzean nahiz betetzean".

17/2019 Foru legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa. 18. artikulua '*Laguntza publikoak*', esaten du: Nafarroako administrazio publikoek, haien erakundeek eta haiekin lotutako edo haien menpeko entitateek deitzen dituzten dirulaguntzen, beken eta beste edozein laguntza publikoren oinarri arautzaileetan berdintasun klausulak jasoko dira, horren bidez baloratzeko entitate eskatzaileek genero berdintasuna egiaz lortzeko diren jarduketak dituzten edo, hala denean, jarduketa horiek nahitaez betearazteko, salbu eta laguntzaren izaera dela-eta justifikaturik badago halako klausularik ez egotea.

Era berean 29. Artikuluak '*Ahalduntzea eta kirol arloko partehartzea*, esaten du Nafarroako administrazio publikoek erraztasunak eman behar dituzte emakumeek eta neskatok kirola egin dezaten eta kirolaren maila eta eremu guztietan parte hartu eta horretan jarrai dezaten, bai aisialdian bai lehian, jarduteko irizpideak artikuluko bereko 2. atalean adierazten den bezala.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako udal ordenantzaren 17. artikulua, "Genero klausulak laguntza publikoetan" izenekoak, jasotzen du Altsasuko Udalak genero ikuspegia txertatuko duela dirulaguntzen deialdien oinarri arautzaileetan.

Kontuan hartu behar denez kirol klubek eta elkarteek funtsezko eginkizuna dutela kirol jarduera bultzatzeko eta herrietan hura garatzeko, Altsasuko Udalak, Kirol Zerbitzuaren bidez, kirol entitateendako diru-laguntzen deialdia egin du, 2026an egindako kirol-jarduerak laguntzeko asmoz.

**1) XEDEA**

1. Deialdi honen helburua da kirol klubei eta elkartei diru-laguntzak emateko erregimena arautzea, 2026an beren kirol jarduerak eta ekitaldiak bultzatzea.
2. Diru-laguntzaren helburua, kirol klub eta elkarten bitartez kirol jarduera sustatzea da, kirola pertsonaren prestakuntza, garapen integrala, gizarteratzea eta bizi kalitatea hobetzen laguntzen duen jarduera bezala ulertuz. Diru-laguntzak honako helburu zehatz hauek ditu:
  - Kirol klub eta elkartei alor horretako jardueren programak garatzen laguntzea, lehiakorrak direnak nahiz ez-lehiakorrak.



- Kirol jarduera biztanleriaren sektore guztiengana heltzea sustatzea, emakumeen kirola bereziki bultzatuz. Horretaz gain, dibertsitate funtzionala duten pertsonendako kirola bereziki bultzatuko da.
- Kirol asoziazionismoa finkatzea, gizon eta emakumeen kirolerako jartzen diren baliabideak berdintasunez banatu eta kirol jarduera garatzeko erabiltzen dituen hizkuntza eta irudiak berdintasunez erabiltzen dituenak.
- Kirolari buruzko gaietan tokiko kirol erakundeen eta Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzuaren artean arduraz egin beharreko koordinazioa, lankidetzeta eta kooperazioa bultzatzea.

**3.** Deialdi honetan diruz lagunduko diren kirol jarduerak lau ataletan sailkatzen dira:

**A) 16 URTETIK GORAKOENDAKO KIROL JARDUEREN PROGRAMA, KLUBAK MODU EGONKOR ETA JARRAITUAN GARATZEN DUENA.**

Atal honetan diruz lagunduko dira 16 urtetik gorakoendako kirol jarduerak, Altsasuko Udalak intereskotzat jotzen dituenak, betiere denboran modu egonkorrean egiten badira eta laguntzaren xede diren erakundeen programazioan era jarraitu eta egonkorrean agertzen badira.

Altsasuko Udalak lehentasunez lagunduko die ondoko baldintzak betetzen dituzten klubei:

- Kirol eskolen edo 16 urte bitartekoentzako jardueren jarraipena bermatzen dutenak.
- Federazioen ligetan parte hartzen duten taldeak edo kirolariak dituztenak.
- Kirol praktika bultzatzen duen jarduera-programa propioa dutenak.
- Programatutako jardueretan emakumezkoen parte-hartzea bultzatzen dutenak.
- Euren kirolean emakumezkoen kategoriak dituztenak.
- Erreferente femenino hurbilak eta positiboak egotea kontuan hartu eta aukera-berdintasunean prestakuntza duten bi sexutako monitoreak dituztenak.
- Erabakitze organoetan gizonen eta emakumeen arteko parekotasunerako joera dutenak.

Lehiaketan izena emateko, lizentzia nazionalan, entrenatzailearen eta kirolarien joan-etorriek sortzen dituzten gastuak ere sartuko dira atal honetan, hain zuzen ere, kadete mailako lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik egiten dituztenak, Espainian nahiz atzerrian, betiere ez Nafarroako Kirol Institutuak, ez dagokion Federazioak diruz laguntzen ez baditu.

**B) KIROL EKITALDIAK**

Atal honetan diruz lagunduko dira Altsasuko Udalak intereskotzat jotzen dituen jarduerak, baldin eta euren arloan nabarmentzekoak badira.

Altsasuko Udalak lehentasunez lagunduko ditu ondoko baldintzak betetzen dituzten kirol ekitaldiak:



- Emakumezkoen parte-hartzea beraientzat bereziki prestatutako jardueren bidez bultzatzen dutenak.
- Herriko kirolarien eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen parte-hartzea bultzatzen dutenak.
- Gazte mailako jarduerak bultzatzen dituztenak.
- Jarduera ez-lehiakorrek bultzatzen dituztenak.

### **C) FESTETAKO ETA FERIETAKO KIROLO EKITALDIAK**

Atal honetan diruz lagunduko dira festetan edo ferietan egiten diren kirol ikuskizunak, baldin eta Altsasuko Udalak intereskotzat jotzen baditu.

Altsasuko Udalak lehentasunez lagunduko ditu ondoko baldintzak betetzen dituzten kirol ekitaldiak:

- Kirola sustatzeko goi mailako kirol ikuskizunak antolatzen dituztenak (ez profesionalak)
- Emakumezkoen parte-hartzea beraientzat bereziki prestatutako jardueren bidez bultzatzen dutenak.
- Herriko kirolarien eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen parte-hartzea sustatzen badute.
- 16 urte artekoendako kirol jarduerak bultzatzen badituzte.
- Jarduera ez-lehiakorrek bultzatzen badituzte.

### **D) 16 URTE BITARTEKOENDAKO JARDUERA BEREZIAK**

Atal honetan, diruz lagunduko dira 16 urte arteko haur eta gaztetxoendako jarduerak, baldin eta Altsasuko Udalak intereskotzat jotzen baditu. Jarduera horiek Udaleko kirol eskolen eskaintza handitu edo osatu beharko dute. Mistoak izan beharko dute, edota gizonezkoen eta emakumezkoen modalitateak eduki.

Altsasuko Udalak lehentasunez lagunduko ditu ondoko baldintzak betetzen dituzten jarduerak:

- Kirol eskolak ez diren bestelako kirol jarduerak sustatzen badituzte.
- Nesken parte hartzea bultzatzen badute, beraientzat bereziki antolatutako jardueren bitartez.
- Jarduera ez-lehiakorrek bultzatzen badituzte.

#### **4. Diru-laguntza honetatik kanpo gelditu dira:**

- "Eskolen aurkezpenak", baldin eta aurkezpenarekin batera jarduera sustatzeko kirol jardunaldi bat antolatzen ez bada.
- Deialdi honetatik kanpo geldituko dira Udalaren diru-laguntzen beste lerro batzuetan dauden kirol jardueren edo ikuskizunen programak.



## **2) HELBURUAK**

---

Diru-laguntzak kirol klubek eta elkarteek 2026an egindako kirol ekintzak egitean sortutako defizita hein batean ordaintzeko erabiliko dira.

## **3) ENTITATE ONURADUNAK**

---

Deialdi honetako diru-laguntzak eskatu ahaliko dituzte legez eraruta dauden eta helbide fiskala Altsasun duten kirol klub eta elkarteek, baldin eta helbide fiskala Altsasun badute eta beren jarduera nagusia Altsasun bertan egiten badute. Era berean, deialdi honen helburuekin kirol-jarduera puntualak egiten dituzten eta Altsasuko Udaleko Elkarten Erregistroan izena emanda dauden erakunde ez kirolzaleak ere aurkeztu ahal izango dira.

Kirol ikuskizunen atalean, interesekoak direla ebazten bada, Altsasukoak ez diren erakunde edota taldeei eman ahaliko zaizkie diru-laguntzak, baldin eta jarduerak Altsasun egiten badira.

Ezingo dute dirulaguntzarik eskatu emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aurkako helburuak, aintzatespen-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo jarduera dituzten erakundeek. Era berean, ezin izango dituzte laguntzak jaso soldata-diskriminazioagatik, jazarpen moralagatik edo sexuan oinarritutako edozein traturengatik ebazpen administratibo edo epai judizial irmoaren bidez zigortutako edo kondenatutako pertsonak edo erakundeek, ezta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak urratzen dituztenek ere. Kasu horietan, laguntza horiek berriro jaso ahaliko dituzte, baldin eta ezarritako zehapena edo zigorra bete badute.

## **4) DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK**

---

1. Federazioko lizentziak, gastu medikoak (laguntza medikoa, anbulantzia...), aseguruak, kirol materiala, kirol ekipamendua, joan-etorriak, arbitrajeak, monitoreen gastuak, parte-hartzaileendako ikurrak/opariak, kartelak, publizitatea, dietak... Edonola ere, jarduerari zuzenean lotutako gastuak izan beharko dute.

Jardueraren diru-sarrerak parte-hartzaileei opari gisa aurkeztutako gastua baino txikiagoak badira, kontzeptu horretako gastuak onartuko dira, aitortutako gehieneko diru-sarreretaraino edo gehienez 1.500 eurora iritsi arte.

2. Ez dira diruz lagunduko jendeari eskainitako lunchak sortutako gastuak edota bazkariak edo hamarretakoek eragindako gastuak, baldin eta kirol ekitalditik kanpo egin badira.
3. 16 urtera arteko jardueren eta ekitaldien kasuan, ez dira diruz lagunduko Udalaren beste dirulaguntza lerro batzuetan diruz lagundutako gastuak.



4. 16 urtera arteko jardueretan, elikadura osasungarria sustatzeko helburuarekin, bazkari/askari osasungarriak soilik lagunduko dira diruz (fruta, ura, ogitartekoa, fruitu lehorrak).

## 5) DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

---

Laguntzaren zenbatekoa deialdi honen 1. eranskinean azaltzen den baremoaren eta irizpideen arabera finkatuko da. Jarduera bakoitzari puntuazio bat emango zaio ezarritako baremoari jarraikiz. Atal bakoitzean ezarritako gehieneko kopurua jarduera bakoitzean lortutako puntuei begiratuz banatuko da, proportzionalki.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da inolaz ere jarduerak sortutako defizita baino handiagoa izan, eta horrela balitz, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko litzateke.

Diru-laguntzaren zenbateko osoa 28.866 eurokoa da. Zenbateko hori Altsasuko Udalaren aurrekontuetan agertzen da xede horretarako.

Zenbateko horretatik, 6.732 € C ataleko jarduerak ordaintzeko dira (Festetako eta ferietako ikuskizunak), 1 33801 4820002 (Festetako kirol ikuskizunetarako diru-laguntzak) partidaren kontura; gainerakoa, A, B eta D ataletarako izango da, eta 1 3410 4890001 (Kirol entitateentzako diru-laguntzak) partidaren kontura ordainduko da, era honetara: 16 urte bitartekoendako programa: 22.134 euro arte.

- 16 urtetik aurrerako jarduera-programa, 15.134 euro arte,
- Kirol ekitaldiak: 6.000 euro arte.
- Festetako eta Ferietako ekitaldiak, 6.732 euro arte
- 16 urte bitartekoendako jarduerak: 1.000 euro arte.

A, B eta D ataletarako aurreikusitako banaketa ekonomikoa aldatu ahal izango da aurkeztutako eskaeren arabera.

Atalen batean aurreikusitako aurrekontua agortuko ez balitz, soberakina gainerako onuradunen artean proportzionalki banatuko da, atal horretan emandako puntuazioari begiratuz.

## 6) ESKAERA EREDUA

---

### 6.1.- Dokumentazioa aurkezteko tokia eta epea

Eskaerak Altsasuko Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztuko dira, egoitza elektronikoaren bidez (<https://sedeelectronica.alsasua.net>). Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Deialdiaren testu osoa Altsasuko Udalaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean egongo da eskuragarri.



## 6.2.- Agiriak

Diru-laguntzetarako eskaerak, Udalaren instantzia orokorrarekin batera, Kirol Zerbitzuak emandako inprimakietan aurkeztuko dira. Inprimakiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira (www.altsasu.net).

Eskaera honako agiriekin aurkeztu beharko da:

1. Banku-erakundeak egindako trasferentziaren ordainketa-ziurtagiria, erakunde eskatzailearen kontuaren titulartasuna egiaztatzen duena. Dagoeneko aurkeztu duten erakundeek ez dute arurkeztu beharrik.

2. Dagokion inprimakiak

A eta A1 inprimakia	A. atala. 16 urtetik gorakoendako kirol jardueren programa.
B inprimakia	B. atala. Kirol ekitaldiak.
C inprimakia	C. atala. Festetako eta ferietako Kirol ekitaldiak.
D inprimakia	D. atala. 16 urte bitartekoendako jarduerak.

Adingabeekin egin ohi dituzten klub edo elkarten kasuan, gainera, hau gehitu beharko da:

3. Diru-laguntza eskatzen duen erakundearen legezko ordezkariak egindako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztea, non adieraziko baitu egunean dituela Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 48. artikuluan ezarritako betebeharrak.

Jarduerak bukatuta badaude, eta datuak errealak edukiz gero, egiaztagiria zuzenean beteko dira.

Entitate eskatzaileek epe bakar batean aurkeztu ahal izango dute eskatutako dokumentazioa, baldin eta horretarako ezarritako epean egiaztagiri guztiak badituzte.

Dokumentazioa aurkeztu ondoren, oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituen egiaztatuko da. Dokumentazioa osatu gabe badago edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, eskatzaileari 5 egun balioduneko epea emango zaio aurkeztutako dokumentazioa zuzendu edo osatzeko, dagokion jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita. Dokumentazioa epe barruan osatzen ez bada, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta artxibatu egingo da.

## 7) EMATEA ETA ORDAINTZEA

---

Tokiko Gobernu Batzordeak egingo du ebazpena, Gazteria eta Kirol Batzordearen proposamena aintzat hartuta.

Onartutako zenbatekoa bi epetan ordainduko da: Diru-laguntzaren %60 Ebazpena ematen den momentuan, eta gainerakoa, atal bakoitza behar den bezala justifikatzean.

Egiaztagirian jarduerari ematen zaion puntuazioa eskabidean aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, diru-laguntza proportzionalki murriztuko da.



## 8) AZKEN JUSTIFIKAZIOA

### 8.1. Aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak Altsasuko Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztuko dira, egoitza elektronikoaren bidez (<https://sedeelectronica.ere>). **Aurkezteko epea 2027eko URTARRILAREN 7tik 20ra izango da.**

### 8.2.-Azken justifikaziorako dokumentazioa

Egindako jardueren ziurtagiriak bakarrik beteko dira baldin eta hasierako dokumentazioan jarduera bukatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak bete badira, datu errealekin.

Eskaera honako agiriekin aurkeztu beharko da:

1. Inprimakiak:

AJ, A1J inprimakiak:	A atala. 16 urtetik gorakoendako kirol jardueren programa.
BJ inprimakia:	B atala. Kirol ekitaldiak
CJ inprimakia:	C atala. Festetako eta ferietako kirol ekitaldiak
DJ inprimakia:	D atala: 16 urte bitartekoendako jarduerak.

- 16 urte gorakoendako jardueren atala justifikatzeko, honakoak aurkeztu beharko dira: jardueren egutegia (5. irizpidea justifikatzeko) eta federazio-lizentziak edo taldeak/kirolariak lehiaketetan izena ematearen agiriak (6. irizpidea justifikatzeko). Era berean, 5. eta 6. ataletako jardueretan parte hartu duten pertsonak betetako gogobetetze-inkesta ere aurkeztu beharko da. 2025-2026ko denboraldiaren datuak.
- Diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuei dagozkien gastuen fakturak, jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak, behar diren baldintza formalen arabera eginak. Ez dira onartuko horrela justifikatzen ez diren gastuak.
- Ordainagiriak, honako hauek izan daitezkeenak: bankuko frogagiriak; "ordaindua" zigilua daramaten fakturak, hornitzaileak sinatu eta zigilatuak; edo beste edozein agiri, dagokion faktura ordaindu dela frogatzen duena.
- Monitoreen, epaileen... gastuak justifikatzen diren kasuetan 2026. urteko 190. inprimakia aurkeztu beharko da.
- Diru-laguntzaren xede den jarduerarako beste entitate batzuek, pribatuek nahiz publikoek, emandako diru-laguntzen, fondo propioen edota bestelako baliabideen zinpeko aitortpena, emandako ereduaren arabera. Nahiz eta beste diru-laguntzekiko bateraezintasunik ez egon, jasotako diru-laguntzen zenbatekoa ezin izango da diruz lagundutako kontzeptu bakoitzaren zenbateko osoa baino handiagoa izan.
- Klubak Nafarroako Ogasunean aurkeztu beharko ditu izapidetutako BEZ aitortpenak. Aitortpen horiek aurkeztu ezean, horri buruzko zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da, justifikatutako gastu gisa aurkeztu diren fakturen BEZa ezin dela berreskuratu adieraziz (II. eranskinaren arabera).



8. B atalen kasuan, derrigorrezkoa da proba iragartzen duen kartela aurkeztea.

## **9) ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

---

Diru-laguntzak lortzen dituzten taldeek laguntza horien xederako erabili beharko dituzte, eta, era berean, Altsasuko Udalak eskatutako egiaztapenak onartu eta eman beharko dituzte.

Behin jarduerak bukatuta, diru-laguntza jasotzen duten taldeek erabilitako plubizitate elementuak kendu beharko dituzte derrigorrez.

3 eta 16 urte bitarteko haurrentzat programatzen diren kirol jarduerak ,oro har, euskaraz izango dira. Era berean, helduendako euskarazko kirol jarduerak eskainiko dira

Jardueri lotutako testuak, iragarkiak, kartelak, oharrak eta gainerako jakinarazpenak euskaraz egongo dira, edo euskaraz eta gaztelaniaz. Modu berean jokatu beharko da era guztietako propagandarekin, ahozkoa nahiz idatzia, hau da, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz zabalduko da.

Euskara edo euskara eta gaztelania erabiliko dira diru-laguntzaren xede den jardueraren ondoriozkoak diren izaera publikoko adierazpen guztietan. Gaztelaniaz eta euskaraz egiten diren ahozko adierazpenetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

Talde onuradunek berdintasunez erabili beharko dute kirol jardueren hedapenean erabiltzen duten hizkuntza eta irudiak, eta trofeoak edo sariak egonez gero, berdintasunez banatuko dira emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietan.

Era berean, jardueri eta diru-laguntzaren prozedurari buruzko informazio eta komunikazio guztietan sexuaren arabera bereizitako datuak erabiliko dira. Eta, jardueren analisi edo balorazioen bat egiten bada, sexuaren arabera bereizita egingo da.

Kirol ekitaldien kasuan, kartel iragarlea auzeratu beharko da beti, eta hartan Altsasuko Udala laguntzailea dela agertu beharko da derrigorrez.

Antolatzen diren kirol ekitaldiek Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Plana eta Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea betetzen direla zaindu beharko dute. Halaber, Jendaurreko Ekitaldiei eta Iraunkortasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretuan ezarritako prebentzio, bereizketa eta hondakinen kudeaketa neurriak eta komunikazio eta sentsibilizazio neurriak bete beharko dira. Adibide gisa, ingurumen-iraunkortasuneko neurri horietako batzuk aipatzen dira:

- a) Ekitaldia edo jarduera antolatzean, erabilera bakarreko plastikoak erabiltzea saihestea.
- b) Elikagaiak edo edariak eskainiz gero, berriz erabiltzeko edo konpostatzeko ontziteria erabiltzea.
- c) Hondakinak bereizteko sistemak ezartzea eta haien kudeaketa egokia erraztea, udal sistemaren arabera.
- d) Kontsumo arduratsuko eta ingurumen-sentsibilizazioko praktikak sustatzea parte-hartzaileen artean.

Betebehar horiek ez betetzeak diru-laguntza murriztea edo itzultzea ekar dezake, diru-laguntzei buruzko araudian aurreikusitakoari jarraikiz. Halaber, ekitaldia egiten den bitartean, argi eta garbi jakinaraziko dira hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruz ezarritako neurriak.



Adingabeekin jarduerak egin ohi dituzten klub edo elkarteen kasuan, haurrak eta nerabeak Indarkeriatik Erabat Babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 48. artikuluan ezarritako betebeharrak egunean izan beharko dituzte.

## **10) EZ BETETZEA**

---

Deialdi honen oinarriek xedatutakoa bete ezean, datuak faltsutu edo diru-laguntza ematerakoan kontuan hartu ziren helburuak aldatzen badira, diru-laguntza galduko da edo jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

## **11) DATUEN BABESA**

---

Altsasuko Udala da botere publikoen dirulaguntzen deialdiak kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna. Datuak laga ahal izango dira indarrean dagoen legedia betez, eta udalaren webgunean eta dirulaguntzen atarian argitaratuko dira. Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita beste eskubide batzuk ere; horretarako, udal-bulegoetara jo behar duzu. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria kontsulta ditzakezu [www.alsasua.net](http://www.alsasua.net) helbideko Pribatutasun Politikan.

## **12) ERREKURTSOAK**

---

Lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar oinarriak osorik onartzea eta beren lanak aurkezten dituzten hautagai guztiak haien mende egotea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazka oro organo emaileak ebartziko du.

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio egintzaren egile den udal organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik hasita.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori hasiko da errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean. Epe hori errekurritutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da

## **13) OINARRIEN ARAUDI OSAGARRIA**

---

Ondoko oinarriek xedatzen ez dituzten inguruabar guztietan ondoko araudiek erregulatzen dutena aplikatuko da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen, uztailaren 2koaren, 221.



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
[www.alsasu.net](http://www.alsasu.net)  
[alsasu@alsasu.net](mailto:alsasu@alsasu.net)  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

eta 223. arteko artikuluek, Diru-laguntzak Ematea Arautzen duen Ordenantzak eta 2026ko Aurrekontua Betetzeko Oinarriek



## 1. ERANSKINA: BAREMOA ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

### A) 16 URTETIK GORAKOENDAKO JARDUEREN PROGRAMA (gehienez ere 30 puntu)

**A.1.** Altsasuko Udalarekin sinatutako hitzarmenak kirol eskolak garatzeko: 0.5 puntu.

**A.2.** Genero-ikuspegia (gehienez 1.5 puntu).

- a) Erabakitze organoetan gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna: Erabakitze organoetan emakumeen presentzia %20koa bada, 0,25 puntu; paritarioa bada, 0,50 puntu gehiago.
- b) Emakumezko monitoreen presentzia: 0,25 puntu, entrenatzaile bakoitzeko.
- c) 16 urtetik gorako monitoreek kirola genero-ikuspuntutik arloan prestakuntza izatea: Monitoreen erdia baino gutxiago, 0,25 puntu; monitoreen erdia baino gehiago, 0,5 puntu.

**A.3.** Jardueren programa (gehienez ere 13 puntu).

- a) Klubak urteko programa finkoa badu bere kirol modalitateak gauzatzeko: 2 puntu, baldin eta aipatu programan kirol modalitate bakarra badago; 3 puntu, kirol modalitate bat baino gehiago badago.
- b) Federazioek edo erakunde ofizialek antolatutako lehiaketa ofizialetan parte hartzea.

Gazteen kategorian parte hartzen duen federatutako talde bakoitzeko: 3 puntu, eta senior/beterano kategorian: 2 puntu. Emakumezkoen taldeek 0,5 puntu gehiago izango dute.

Banakako kiroletan: Aurreko ataleko baremo bera aplikatuko da; kirolari bakoitzari esleitutako puntu kopurua kalkulatzeko, puntuak hamabosten artean zatituko dira. Gehienez ere 3 puntu emango dira, baldin eta kirolarien %50 baino gehiago emakumezkoak edo emakumezko gazteak badira, eta gehienez ere 2 puntu, baldintza hori betetzen ez bada.

**A.4.** Baliabide ekonomikoak (gehienez ere 15 puntu).

GASTUAK	>1000 €	>2000 €	>5000 €	>9000 €	>15000 €	>30000
	Puntu 1	2 puntu	4 puntu	7 puntu	12 puntu	15 puntu

### B. KIROL EKITALDIAK (gehienez ere 74 puntu)

**B.1.** Parte-hartzea (gehienez 18 puntu)

-Parte-hartzaileen kopurua:

100 parte-hartzaile arte:	Puntu 1
101etik 400 parte-hartzaile arte:	3 puntu
400 parte-hartzaile baino gehiago:	5 puntu



-Emakumezkoen parte-hartzea (parte-hartze osoari dagokionez)

Parte-hartzaile guztietatik, emakumeen kopurua %5 bitarte:	Puntu 1
Parte-hartzaile guztietatik, emakumeen kopurua %20 bitarte:	3 puntu
Parte-hartzaile guztietatik, emakumeen kopurua %20 baino altuagoa:	5 puntu

-Bertakoen parte-hartzea (parte-hartze osoari dagokionez)

Parte-hartzaile guztietatik, %10 arte:	Puntu 1
Parte-hartzaile guztietatik, %20 bitarte:	2 puntu
Parte-hartzaile guztietatik, %50 arte:	3 puntu
Parte-hartzaile guztietatik, %50 baino altuagoa bada:	5 puntu

-Dibertsitate funtzionala duten pertsonen parte hartzea (gehienez ere 3 puntu)

0,50 pertsona bakoitzeko (Gehienez 3 puntu)

20 pertsonak baino gutxiagok parte hartzen badute, gehienez ere puntu 1 emango da atal bakoitzean.

**B.2.** Baliabide ekonomikoak (gehienez ere 46 puntu).

GASTUAK	>200 €	>1000 €	>2000 €	>5000€	>12000 €
	5 puntu	10 puntu	15 puntu	20 puntu	40 puntu
Ponderatzeko defizita	>50	% 50 arte	40% arte	<30%	
	0 puntu	2 puntu	4 puntu	6 puntu	

**B.3.** Sustatu beharreko jarduerak: (Gehienez: 10 puntu).

Emakumezkoen kirola sustatzeko jarduera zehatzak:	5 puntu gehiago
gazteen kirola sustatzeko jarduerak:	5 puntu
Jarduera ez-lehiakorrak:	5 puntu

**C.- FESTA ETA FERIETAKO JARDUERAK (gehienez 74 puntu)**

**C.1.** Parte-hartzea (gehienez 18 puntu).

-Parte-hartzaileen kopurua:

100 parte-hartzaile arte:	Puntu 1
101etik 400 parte-hartzaile arte:	3 puntu
400 parte-hartzaile baino gehiago:	5 puntu

-Emakumezkoen parte-hartzea (parte-hartze osoari dagokionez)

Parte-hartzaile guztietatik, emakumeen kopurua %5 bitarte:	Puntu 1
--	---------



Parte-hartzaile guztietatik, emakumeen kopurua %20 bitarte:	3 puntu
Parte-hartzaile guztietatik, emakumeen kopurua %20 baino altuagoa:	5 puntu

-Bertakoen parte-hartzea (parte-hartze osoari dagokionez)

Parte-hartzaile guztietatik, %10 arte:	Puntu 1
Parte-hartzaile guztietatik, %20 bitarte:	2 puntu
Parte-hartzaile guztietatik, %50 arte:	3 puntu
Parte-hartzaile guztietatik, %50 baino altuagoa bada:	5 puntu

-Dibertsitate funtzionala duten pertsonen parte hartzea (gehienez ere 3 puntu)

0,50 pertsona bakoitzeko (Gehienez 3 puntu)

20 pertsonak baino gutxiagok parte hartzen badute, gehienez ere puntu 1 emango da atal bakoitzean.

**C.2.** Baliabide ekonomikoak (gehienez ere 46 puntu).

GASTUAK (€)	>300 €	>1000 €	>2000 €	>4000 €
PUNTUAK	5 puntu	10 puntu	20 puntu	40 puntu
DEFIZITA (%)	>50 %	%50 arte	%40 arte	<30%
Puntuak	0 puntu	2 puntu	4 puntu	6 puntu

**C.3.** Sustatu beharreko jarduerak: (Gehienez: 10 puntu).

Emakumezkoen kirola sustatzeko jarduera zehatzak:	5 puntu gehiago
Haurren kirola sustatzeko jarduerak:	5 puntu
Kirol profesionalera igaro aurretiko kirol mailako jarduerak:	5 puntu
Jarduera ez-lehiakorrak:	5 puntu

**D. 16 URTE BITARTEKO JARDUERAK (gehienez ere 46 puntu)**

**D.1.** Parte-hartzea (gehienez 5 puntu)

-Emakumezkoen parte-hartzea (parte-hartze osoari dagokionez):

Parte-hartzaile guztietatik, emakumeen kopurua %20 bitarte:	Puntu 1
Parte-hartzaile guztietatik, emakumeen kopurua %50 bitarte:	3 puntu
Parte-hartzaile guztietatik, emakumeen kopurua %50 baino altuagoa:	5 puntu

**D.2.** Bolumen ekonomikoa (gehienez 31 puntu)

GASTUAK (€)	300 euro arte	300-800 €	>800 €	>1500 €
PUNTUAK	5 puntu	15 puntu	20 puntu	25 puntu



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.alsasu.net  
alsasu@alsasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

DEFIZITA (%)	>50 %	%50 arte	40% arte	<30%
Puntuak	0 puntu	2 puntu	4 puntu	6 puntu

Taldeen edo kirolarien aurkezpenetan kontuan hartu beharreko gehieneko gastua 300 euro dira. Diru-sarreretan, ez dira kontuan hartuko kuoten bidez lortutako diru-sarrerak.

**D.3.** Sustatu beharreko jarduerak: (Gehienez: 10 puntu).

Emakumezkoen kirola sustatzeko jarduera zehatzak:	5 puntu
Jarduera jarraitua, kirol eskolen alternatiboa dena:	5 puntu
Jarduera ez-lehiakorak:	5 puntu